



Administrazio Kontseilua  
Consejo de Administración

## EITB-KO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUDIA

2016ko ekainaren 28ko ohiko bileran onartua



## **AURKIBIDEA**

**HITZAURREA** 3. or.

<b>1. TITULUA. ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ERAKETARI BURUZ</b>	3. or.
<b>II. TITULUA. ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZ</b>	4. or.
I. KAPITULUA - PRESIDENTETZARI BURUZ	
II. KAPITULUA - KIDEEI BURUZ	
1. atala - Eskubideak eta betebeharrak	
2. atala - Kontseilari-postua uztea edo horri uko egitea	
III. KAPITULUA - KONTSEILUKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEI BURUZ	
1. atala - Akten idazkaria	
2. atala - Legelari aholkularia	
<b>III. TITULUA. BATZORDEEI BURUZ</b>	7. or.
<b>IV. TITULUA. KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZ</b>	8. or.
I. KAPITULUA - BILEREN DEIALDIARI BURUZ	
II. KAPITULUA - BILERA-MOTEI BURUZ	
III. KAPITULUA - BILEREN GARAPENARI BURUZ	
1. atala - Arau orokorrak	
2. atala - Debateei buruz	
3. atala - Bozketei buruz	
<b>V. TITULUA. PRINTZIPIO ETIKOEI ETA GARDENTASUNARI BURUZ</b>	13. or.
<b>VI. TITULUA. EITB-REN TELEIKUSLE, IRRATI-ENTZULE ETA INTERNAUTEN DEFENTSA- BULEGOARI BURUZ</b>	14. or.
I. KAPITULUA - DEFENTSA-BULEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZ	
II. KAPITULUA - SARRERA-PROZEDURARI BURUZ	
<b>VII. TITULUA. ARAUDIAREN ERREFORMA</b>	16. or.
<b>AZKEN XEDAPENA</b>	16. or.

## HITZAURREA

Araudi honen helburua da EiTbko Administrazio Kontseiluaren lana eta funtzionamendua arautzea, behar bezala garatuz 5/1982 Legea, martxoaren 20koa, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeari buruzkoa, zeina 8/1998 Legeak, martxoaren 27koak (apirilaren 17ko EHAA argitaratuak) aldatu baitzuen —hemendik aurrera EiTbren Legea deituko diogu—. Lege horren 8.2.f artikulua Administrazio Kontseiluaren lana eta funtzionamendua gardentasun-politika publikoekin lotzen ditu; Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoa arautzen du, bertatik bidera dadin Euskadiko irrati-telebistako eta Interneteko zerbitzu publikoaren erabiltzaileen parte-hartzea, eta, azkenik araudia bera erreformatzeko prozedura ezartzen du.

## I. TITULUA - ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ERAKETARI BURUZ

**1. artikulua.** 1. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, Eusko Legebiltzarrak EiTbko Administrazio Kontseiluko kideak izendatuko ditu.

Erabakiaren berri Herri Erakundean jasotakoan, Administrazio Kontseiluko Idazkaritzak jarduneko kontseiluburuari jakinaraziko dio. Horrek, alde batetik, kontseilari berriak Kontseilua osatzeko bilkurara deituko ditu eta, bestetik, kargua utziko duen Administrazio Kontseiluko kideak deituko ditu.

Bi bilkurak egun berean jarriko dira, gehienez ere Legebiltzarrak erabakia hartzen duenetik hilabetera, bien artean ordu bateko aldea utzita. Lehenengo eta behin, kargua utziko duen Kontseiluaren bilkura egingo da, eta haren gai-zerrendako puntu bakarra azken bilkuraren akta onestea izango da.

Bukatutakoan, kontseilu berria osatzeko bilkura izango da, besteak beste, gai-zerrenda honekin: kontseilarien kargu-jabetzea; Kontseiluaren eraketa, burua kontseilari zaharrena dela, eta Akten Idazkaritzaren eta Aholkularitza Juridikoaren zereginak beteko dituzten pertsonen izendapena edo berrespena.

2. Zuzendaritza Nagusiak bi postu horietarako proposamen bana aurkeztuko du, dela izendapena, dela berrespena. Kontseilari berriek alternatibak aurkeztu ahalko dituzte. Proposamen bat baino gehiago aurkeztuz gero, bozketa bakarrera ekarriko dira guztiak, eta boto gehien lortzen dituen pertsona izendatuko da.

3. Administrazio Kontseilua eratzeko bilkurara joanez jabetuko dira karguaz kontseilari berriak. Eratzeko bilkurara joaten ez diren kideak joaten diren lehen bileran jabetuko dira karguaz, formalitate guztiekin.

## II. TITULUA - ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZ

**2. artikulua.** 1. Administrazio Kontseilua kide anitzeko organoa da, eta Eusko Legebiltzarrak izendatutako kontseilariak eta EiTBko zuzendari nagusiak daukate eskubide osoko kide gisa, hitzarekin eta botoarekin, bileretara joateko eskubidea.

2. Era berean, Kontseiluko Akten idazkari eta aholkulari juridiko izendatutako pertsonak ere joango dira, hitzik eta botorik gabe. Haien iritzia behar denean baino ez dute parte hartuko.

## I. KAPITULUA - PRESIDENTETZARI BURUZ

**3. artikulua.** Administrazio Kontseiluko presidente edo buruaren zeregina txandaka hartuko dute kide guztiek, EiTBko zuzendari nagusiak izan ezik. Agintaldiak hiru hilabete iraungo du.

Administrazio Kontseiluko kide zaharrena hasiko da eta, banan-banan, denek beteko dute eginkizuna, zaharrenetik gazteenera adinaren lege-irizpideari jarraiki.

**4. artikulua.** Administrazio Kontseiluko kide batek legegintzaldian karguari uko egiten badio edo postua uzten badu, Eusko Legebiltzarrak postua bete, eta izendatzen den pertsonak ordezkatuaren tokia izango du txandako presidentetzaren ondorioetarako.

**5. artikulua.** Txandako kontseiluburua absente badago, edo bilerara joaterik ez badu, adinaren arabera hurrengo den Administrazio Kontseiluko kideak ordezkatu du bere funtzioetan bilera horretan. eta berak hartuko dio presidentetza une horretan daukanari.

**6. artikulua.** Bilkura batean Presidentetza ez gauzatzeak ez du ematen beste bilera batean kontseiluburu izanez konpentsatzeko eskubiderik.

**7. artikulua.** Hauek dira kontseiluburuaren eginkizunak:

- a) Administrazio Kontseilua ordezkatzea.
- b) Administrazio Kontseiluaren bileren deialdia erabakitzea eta gai-zerrenda finkatzea.
- c) Bileren buru izatea eta haien garapena moderatu eta zuzentzea.
- d) Administrazio Kontseiluaren erabakien aktei eta ziurtapenei oniritzia ematea.
- e) Bilerak bukatzean, Administrazio Kontseiluak hartutako erabakien bozeramailea izatea.
- f) EiTBren teleikusle, irrati-entzule eta internauten defentsa gauzatzea.

## II. KAPITULUA - KIDEEI BURUZ

### Lehen atala. Eskubideak eta betebeharrak

**8. artikulua.** 1. Hauek dira Administrazio Kontseiluko kideen eskubideak:

- a) Eskubide osoko kide gisa parte hartzea Administrazio Kontseiluaren bileretan eta kide diren batzordeetan.
- b) Botoa emateko eskubidea gauzatzea, eta botoa justifikatzea, nahi izanez gero.
- c) Administrazio Kontseiluaren erabakien ziurtapenak eskatzea.
- d) Administrazio Kontseiluaren bilera-deialdia eta gai-zerrenda jasotzea, eta araudi honetan xedatzen den aurrerapenarekin gai-zerrendako puntuei dagokien dokumentazioa eskura edukitzea. Gauza bera batzordeen bilerei aplikatuko zaie.
- e) Euren funtzioak betetzeko beharrezkoak diren informazioa eta agiriak jasotzea.
- f) EiTBren Legeak Administrazio Kontseiluari ematen dizkion eskumenen arloan proposamenak eta iradokizunak aurkeztea, gai-zerrendan sartzeko.
- g) Kontseiluak erabakitzen dituen baldintzetan, beren funtzioak betetzearen ondoriozko diru-konpentsazioak jasotzea.

2. Administrazio Kontseiluak kide bati zuzenean edo pertsonalki eragiten dion gai bati buruz erabaki behar duen kasuan, eta kasu horretan soilik, egoera horretan dagoenak bileratik joan beharko du, bai debatean, bai ondoko bozketan, egonez gero, eta bukatutakoan sartuko da.

**9. artikulua.** Hauek dira Administrazio Kontseiluko kideen betebeharrak:

- a) Administrazio Kontseiluaren bileretara eta batzordekide izendatuta dauden batzordeen bileretara joatea.
- b) EiTBren Legean xedatutako bateraezintasun-arauei men egitea; hala, Administrazio Kontseiluko buruari eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari berehala jakinaraziko diete bateraezintasuna ekar dezakeen edozein egitate, ebalua dezaten.
- c) Administrazio Kontseiluan eta parte hartzen duten batzordeetan egon diren eztabaidei dagokienez, zuhertasuna eta konfidentziasuna gordetzea.

**10. artikulua.** Zuzendari nagusiak, horrez gain, EiTBren Legean xedatutako eskubideak eta betebeharrak edukiko ditu.

### **Bigarren atala. Kontseilari-postua uzteari edo horri uko egiteari buruz.**

**11. artikulua.** Kontseilariak, bai hasieran Eusko Legebiltzarrak hautatutakoek, bai horien kargu-uzte, uko edo heriotzaren ondorioz geroago kontseilari bihurtu direnek, legegintzaldia bukatzean utziko dituzte karguak. Hala ere, jardunean jarraituko dute agintaldi berriko kontseilariak karguaz jabetu arte.

**12. artikulua.** Administrazio Kontseiluko kide bat EiTBren Legean aurreikusitako kausetako baten pean badago, bide emango zaio haren kargu-uzteari, Eusko Legebiltzarrak hala erabaki eta erakunde berak Administrazio Kontseiluko buruari jakinarazi ondoren.

**13. artikulua.** 1. Era berean, Administrazio Kontseiluko kide izateari uztea dakarte borondatezko ukoak eta heriotzak.

2. Borondatezko ukoa Administrazio Kontseiluko buruari zuzendutako idazki baten bidez formalizatuko da; horrek Eusko Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio, Ganberak beste norbait izenda dezan.

3. Kide bat hiltzen bada, Administrazio Kontseiluko buruak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio, Ganberak beste norbait izenda dezan.

**14. artikulua.** Kargugabetzeak eta ukoak kide berria karguaz jabetzean izango dute eragina.

### III. KAPITULUA - KONTSEILUKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEI BURUZ Lehen atala. Akten Idazkaritza.

**15. artikulua.** Administrazio Kontseiluko Akten Idazkaritzako kargurako izendatzen den pertsonak eginkizun hauek edukiko ditu:

- a) Administrazio Kontseiluaren eta haren batzordeen bileren deialdia egitea eta gai-zerrenda prestatzea.
- b) Administrazio Kontseiluaren eta haren batzordeen bileretara joatea, hitzik eta botorik gabe, eta haien akta egitea.
- c) Administrazio Kontseiluaren eta haren batzordeen akta-liburua, artxiboa eta gainerako agiriak zaintzea.
- d) Administrazio Kontseiluko buruaren oniritziarekin, hartu diren erabakien ziurtapenak ematea, eskatzen dizkiotenean.
- e) Herri Erakundearen egoitzan haren lehorreko zigilua gordetzea eta kontserbatzea, zeina agiri ofizialetan baino ez baita erabiliko Administrazio Kontseiluko buruak agintzen duenean.
- f) Kontseiluburuari Administrazio Kontseiluaren administrazio- eta antolaketa-lanetan laguntzea, kideei zuzendutako komunikazioak barne.
- g) Administrazio Kontseiluko Presidentetzari zuzendutako idazkiak eta eskaerak hartu eta bideratzea.
- h) EiTbren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoko Idazkaritzaren funtzioak, araudi honetan xedatzen direnak, betetzea.

**16. artikulua.** Bilera bakoitzeko akta bat egingo du, eta bertan, edozein kasutan, hauxe jasoko da:

- a) bileraren tokia
- b) eguna, hila eta urtea
- c) bilera hasi eta bukatu den ordua
- d) buruaren eta bertaratu direnen izen-abizenak
- e) bilera-mota
- f) gai-zerrenda

g) jorratutako gaien zerrenda

h) egin diren bozketak, horrelakorik egonez gero, haien emaitza eta kontseilariek agerrarazi nahi dituzten jarrerak

**17. artikulua.** Akta euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da eta, onartutakoan, akta-liburuan inskribatuko da; Administrazio Kontseiluko buruak bere sinaduraz baimenduko du.

### **Bigarren atala. Aholkularitza Juridikoa.**

**18. artikulua.** Administrazio Kontseiluak berak hautatutako legelari bat edukiko du.

**19. artikulua.** Administrazio Kontseiluko legelaria parte hartzen duen Kontseiluaren eta haren batzordeen bileretara joango da; sortzen diren eztabaidei buruz bere iritzi tekniko eta juridikoa emango du, presidenteak eskatuta, eta eskatzen dizkioten txostenak egingo ditu.

### **III. TITULUA - BATZORDEEI BURUZ**

**20. artikulua.** Administrazio Kontseiluaren batzordeak iraunkorrak edo bereziak izan ahalko dira.

**21. artikulua.** 1. Eraketa eta funtzionamendua EiTBren Legean edo haren arau erregulatzailleetan xedatuta dauzkatenak batzorde iraunkorrak izango dira.

2. EiTBren hedabideetan publizitatearen emisioa erregulatzeko duten arauetan aurreikusitako publizitate-kontrolako batzordea batzorde iraunkortzat joko da. Kide berriak legegintzaldi bakoitzaren hasieran izendatuko dira, Administrazio Kontseilu berria eratuta dagoenean.

**22. artikulua.** 1. Administrazio Kontseiluak lan edo gai jakin baterako eratzen dituen batzordeak batzorde bereziak izango dira.

2. Batzorde berezi bat sortzeko, gehiengo soilak behar izango dira, eta gehiengo soil horrek adostu behar ditu batzordearen lanaren edo gaiaren xedea, eraketa eta kideak (Administrazio Kontseiluko kideen laurdenak, batzordearen izaeragatik besterik erabaki ezean).

3. Batzorde berezia haren esku utzitako lana bukatutakoan edo, edozein kasutan, Administrazio Kontseiluaren agintaldia amaitutakoan deuseztatuko da.

**23. artikulua.** Kide zaharrena izango da batzordeen buru, eratzeko bileran baiespenez besterik zehaztu ezean.

**24. artikulua.** EiTBko Zuzendaritzak bilera-gelak batzordeen esku jarriko ditu eta beren funtzioak gauzatzeko behar dituzten laguntza teknikoa eta aholkularitza emango dizkie.

Era berean, batzordeetako kideen gehiengo soilak egokia iritziz gero, jorratzen den gaia ezagutzen duten adituen aholkularitza eduki ahalko dute euren zereginetan.

**25. artikulua.** Lehen bileran, batzordeko kideek egutegia egin, eta jarraitu beharreko lan-metodologia ezarriko dute.

**26. artikulua.** Batzordeak batzordeburuaren ekimenez bilduko dira, edo edozein kidek zio arrazoituengatik hala eskatuta. Bilkura guztiak Administrazio Kontseiluaren bilkuretarako ezarritako prozedura berberaz deituko dira, bai epeei, bai dokumentazioari dagokienez, salbu eta kideek aho batez beste modu batean lan egitea erabakitzen badute, zereginak arintzeko helburuarekin.

**27. artikulua.** Batzordeek euren lanen emaitzen berri emango diote Administrazio Kontseiluari eta, hala badagokio, egokiak diren proposamenak egin ahalko dizkiote, aintzat har ditzan.

#### **IV. TITULUA - KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZ**

##### **I. KAPITULUA - BILEREN DEIALDIARI BURUZ**

**28. artikulua.** EiTBko Administrazio Kontseilua buruak deituta bilduko da. Deialdiarekin batera gai-zerrenda emango da, eta bilera hasiko den tokia, eguna eta ordua adieraziko dira.

**29. artikulua.** Deialditik bilerara arte zazpi egun natural igaro beharko dira, salbu eta premiazko bilera berezia denean.

**30. artikulua.** 1. Gai-zerrendak EiTBko Zuzendaritza Nagusiak proposatutako gaien zerrenda jasoko du.

2. Era berean, edozein kontseilarik sartzeko eskatu duen puntua jasoko du, EiTBren Legeak Administrazio Kontseiluari esleitzen dizkion gaiei buruzkoa bada. Kasu horretan, eskaera presidenteari zuzendutako idazki baten bidez egin beharko da eta Akten idazkariaren bidez erregistratu beharko da, deialdia bidali aurreko eguneko gauerdia (12:00 p. m.) baino lehen, hurrengo ohiko bileraren gai-zerrendan sartu ahal izateko.

**31. artikulua.** Gai-zerrendako puntuekin zerikusia daukan dokumentazioa, ahal bada, deialdia bidaltzen den unean jarriko da kontseilarien esku eta, edozein kasutan, bilkura egin baino berrogeita zortzi ordu lehenago, horretarako egokitu den Administrazio Kontseiluaren intranetean edo etorkizunean zehazten den moduan. Betekizun hori ezingo da eskatu kontseiluburuak premiazko bilera berezi bat deitzen duenean.



## II. KAPITULUA - BILERA-MOTAK

**32. artikulua.** Honelakoak izan daitezke Administrazio Kontseiluaren bilerak: ohikoak, bereziak, berezi eta premiazkoak.

**33. artikulua.** 1. Hilero egiten den bilera joko da ohiko bileratzat. Administrazio Kontseiluak lehentasunezko data batzuk finkatuko ditu bilera horiek egiteko.

2. Ohiko bilera bakoitza bukatutakoan, txandako kontseiluburuak Kontseiluaren hurrengo ohiko bilera egiteko data posible bat jakinaraziko du.

3. Ohiko bileren gai-zerrendan, honako puntu hauek jasoko dira nahitaez: aurreko akta onestea, hala badagokio, eta galdera-eskeak.

**34. artikulua.** Gutxienez zortzi kontseilarik bilera egiteko eskaera bat sinatzen dutenean, kontseiluburuak bilera berezia deituko du nahitaez. Bilera berezi horren gai-zerrenda zehatza eskaera-idazkian bertan adieraziko da.

Eskaera kontseiluburuari zuzendutako idazkiaren bidez egin, eta Akten idazkariaren bidez erregistratu beharko da.

**35. artikulua.** 1. Kontseiluburuak ikusten badu, bere kabuz, egoera larri eta ezohiko bat dagoela eta bere ustez beharrezkoa dela Administrazio Kontseiluak jarrera bat erabakitzea berari dagozkion gaitako batean, orduan, bilera berezi eta premiazko bat deituko du.

2. Bileraren deialdia telegramaz, burofaxez edo jaso dela egiaztatzen duen beste edozein baliabide elektronikoa edo digitalen bidez bidaliko zaie kideei, gai-zerrenda eta bilera egingo den tokia, eguna eta ordua adierazita.

3. Deialditik premiazko bilera berezira arte gutxienez egun natural bat igaro beharko da, eta premiazko deialdi berezia eragin duen gaia edo arazoa izango da gai-zerrendako puntu bakarra.

4. Bilera hasteko, kontseiluburuak premiazko bilera berezia behartu duten arrazoiak azalduko ditu, eta Administrazio Kontseiluak alde aurretik premia berretsi egin beharko du. Premia berretsi ezean, bilera bertan bukatuko da.

## III. KAPITULUA - BILEREN GARAPENARI BURUZ

### Lehen atala. Arau orokorrak.

**36. artikulua.** Administrazio Kontseiluaren eraketa baliorduna izateko, botoa emateko eskubidea duten kideen erdiak eta bat bildu behar dira.

**37. artikulua.** 1. Ohiko bilerak hasteko, kontseiluburuak aurreko aktari buruzko oharrik badagoen galdetuko du. Oharrrik ez badago, baiespenez onetsizat joko da. Aitzitik, oharrik egonez gero, eztabaidatu eta bidezkoak diren zuzenketak erabakiko dira.

Hartutako erabakiak ezingo dira inoiz aldatu, eta akats materialak edo egitezkoak soilik zuzendu ahalko dira.

Akta bakoitzean aurrekoa irakurri eta onetsi dela aipatzean, egin beharreko zuzenketak eta oharrak idatziz jasoko dira.

2. Beti egingo da galderak eta eskaerak egiteko txanda, baina ez da eztabaida-txandarik irekiko. EiTbren zuzendariari edo, orobat, Kontseiluko buruari galderaren bat egin eta une horretan erantzuteko beharrezkoa den informazioa ez badaukate, ahalik eta lasterren emango dute erantzun osoa, ohiko komunikazio-mekanismoen bitartez, hurrengo bilkurara arte itxaron behar izan gabe.

**38. artikulua.** Gai-zerrendan dauden hurrenkeran jorratuko dira gai guztiak.

Hala ere, kontseiluburuaren eskumena da gaien hurrenkera aldatzea edo zenbait puntu biltzea, gai berekoak direnean, bilera arintzeko asmoz.

**39. artikulua.** Administrazio Kontseilutik kanpoko beste edozein pertsonak parte hartzea nahi bada, bileraren hasieran eskatu beharko da alde aurreko gai gisa, eta bertaratu diren Administrazio Kontseiluko kideen gehiengo soiluz baimendu beharko da.

Baimena onartutakoan, gai-zerrendari ekingo zaio eta, kanpoko pertsonaren parte hartzea behar duen puntua heltzen denean, kontseiluburuak eskatuko dio bileran sartzeko.

Haren azalpena bukatzen denean eta eskatzen dizkioten argibideak edo informazio osagarriak ematen dituenean, bileratik joango da.

Aktan, bileran sartzeko eta handik irteteko orduak adieraziko dira.

Administrazio Kontseiluaren eztabaidak baimendutako pertsona aretotik irteten denean egingo dira.

**40. artikulua.** Halaber, Administrazio Kontseiluko edozein kidek, bileran zehar, gai-zerrendan beste puntu bat sartzeko proposa dezake, aurreikusitakoez bestelako gaiak lantzeko. Gai-zerrendan sartzeko, nahikoa izango da bertaratu diren Administrazio Kontseiluko kideen gehiengo soilak onestea. Dena den, hala aztertutako gaietan onarpena emateko, bileran bertaratu diren kide guztien adostasuna beharko da.

### Bigarren atala. Debateei buruz.

**41. artikulua.** Kontseiluburuak bideratuko ditu Administrazio Kontseiluan sortzen diren debateak.

**42. artikulua.** 1. Gai-zerrendan dagoen gai bakoitzaren aurkezpena bukatutakoan, kontseilariak parte hartzeko txanda irekiko du kontseiluburuak.

2. Hitza eskatzen duen kontseilari bakoitzak gehienez hiru minutuz hitz egin dezake, salbu eta kontseiluburuak, mintzatzeko eskaeren kopuruaren arabera edo jorratutako gaiaren izaeraren arabera, beste denbora batzuk ezartzen baditu.

**43. artikulua.** Kontseiluburuak baimena ematen dienean hitz egingo dute kontseilariak, eta inork ez ditu etengo, kontseiluburuak izan ezik, denbora agortu zaiela ohartarazteko edo gaiari edo ordenari eusteko agintzeko.

**44. artikulua.** Administrazio Kontseiluko kide batek kontseiluburuak denborari buruz ematen duen jarraibideari jaramonik egiten ez badio, edo gaiari edo ordenari eusteko eskatuta hala egiten ez badu, bi oharpenen ostean hitza kenduko zaio.

**45. artikulua.** Kontseilari batek Administrazio Kontseiluko beste kide bat zuzenean aipatzen duenean, aipatutakoak txanda emateko eska diezaioke kontseiluburuari, aipamenengatik. Kasu horretan, labur hitz egingo du, aipamen horiei erantzuteko baino ez, gehienez bi minutuz, eta ez zaie bertaratuta dauden beste kideei txanda irekiko.

**46. artikulua.** Hitza erabiltzeko txanda- eta denbora-mugak ez zaizkie aplikatuko ez Administrazio Kontseiluko buruari, debatea bideratzeko esku hartzen duenean, ez EITBko zuzendari nagusiari.

**47. artikulua.** Kontseiluburuak erantzun-txanda bat baimenduko dio eskatzen duenari, baina debate bat bukatzea erabakitzeko eskumena edukiko du gai bat nahiko landuta dagoela uste duenean.

### Hirugarren atala. Bozketei buruz.

**48. artikulua.** 1. Honelakoak izan daitezke bozketak: ohikoak, izenezkoak edo sekretuak.

2. Ohiko bozketa egiten denean, kontseilariak eskua jaso adieraziko dute adostasuna, desadostasuna edo abstentzioa. Hori izango da Administrazio Kontseiluaren bozketa-sistema normala. Akordio nabarmena dagoenean, baienez har daiteke erabakia.

3. Izenezko bozketa egiten denean, kontseilariak abizenetik deituko dira hurrenkera alfabetikoari jarraituz, azken lekuan kontseiluburuari deituta, eta botoa emateko eskubidea

daukan kide bakoitzak «bai», «ez» edo «abstentzioa» esango du ozenki. Legeak hala xedatzen duenean erabiliko da bozketa-sistema hau.

4. Bozketa sekretua egiten denean, botoa emateko eskubidea daukan kide bakoitzak boto-paper sekretu baten bidez adieraziko du bere adostasuna, desadostasuna edo abstentzioa. Modalitate hau pertsona bat kargugabetzeari buruzko bozketan izango da bidezkoa, bai eta Administrazio Kontseiluko kide batek eskatzen duenean ere.

**49. artikulua.** Bozketa hasitakoan, Administrazio Kontseiluko ezein kide ezin daiteke gelatik irten bukatu arte.

**50. artikulua.** EITBren Legearen 8. artikuluan, 9. artikuluan eta 13. artikuluko laugarren atalean xedatutako gehiengo bidez hartuko dira erabakiak.

Aipatutako legearen 8. artikuluko 2. atalaren arabera Administrazio Kontseiluaren kideen bi hereneko gehiengoarekin hartu behar diren erabakietarako, jakintzat ematen da gehiengo hori bertaratuta dauden Administrazio Kontseiluko kideei dagokiela.

**51. artikulua.** Berdinketa egonez gero, kontseiluburuak bozketa errepikatzea aginduko du. Horren ostean berdinketa errepikatzen bada, beste bozketa bat jasoko da hurrengo bileraren gai-zerrendako lehen puntu gisa. Berriro berdinketa gertatuz gero, bozkatu den proposamena indargabetutzat joko da.

**52. artikulua.** Bozketa bukatutakoan, kontseiluburuak emaitza jakinaraziko du, emandako botoak eta abstentzioak adieraziz, eta bozkatu den proposamena onetsi edo atzera bota dela aldarrikatuko du.

Erabakia aldarrikatutakoan, botoa azaltzeko txanda bat eska diezaioke kontseiluburuari debatean esku hartu ez duen edozein kontseilarik edo debatearen ostean botoa aldatu duen edozein kontseilarik.

## **V. TITULUA - PRINTZIPIO ETIKOEI ETA GARDENTASUNARI BURUZ**

**53. artikulua.** EITBko Administrazio Kontseiluak, araudi honen bidez, gardentasun-politika publikoetan parte hartzeko konpromisoa bere egiten du. Ildo horretatik, hartzen diren erabakiei buruzko informazioa eskainiko die herritarrei, legeek xedatzen dutena izanik muga bakarra.

**54. artikulua.** Administrazio Kontseiluko kideek fede onez beteko dituzte euren funtzioak, eta inpartzialtasun-, ekuanimitate- eta objektibotasun-printzipioak errespetatuko dituzte, euren irizpidea independentea eta interes partikular orotatik kanpokoa izan dadin. Esku hartu behar duten gaietan euren interesak, euren ezkontidearenak, euren izatezko

bikotekidearenak, laugarren mailarainoko odol-senideren edo ezkontza-ahaideren batenak edo hirugarren batekin partekatzen dituzten interesak tartean badaude, edo mesedetuak izan badaitezke, abstenitu egingo dira.

**55. artikulua.** Aurreko artikuluan aipatutako jarduketa-balio eta -printzipioak betez, Administrazio Kontseiluko kideak behar bezain zuhurrak izango dira euren eskumenak gauzatzearen ondorioz jakiten dituzten egitatei edo informazioei dagokienez, eta ezin dezakete euren funtzioak betetzean lortu duten informazioa euren edo hirugarren baten onurarako erabili edo transmititu, ez euren agintaldian ez kargua utzi ostean.

## **VI. TITULUA - EITB-REN TELEIKUSLE, IRRATI-ENTZULE ETA INTERNAUTEN DEFENTSA BULEGOARI BURUZ**

### **I. KAPITULUA - DEFENTSA BULEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZ**

**56. artikulua.** EiTbren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoa herritarren eskubideak babesteko organo bat da, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoaren jarduerak lege erregulatzailan jasotzen diren printzipio nagusiak betetzen dituela zaintzen duena.

**57. artikulua.** Administrazio Kontseiluko txandako kontseiluburuak hartuko du bere gain, bere agintaldian, EiTbren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoa, eta funtzio hori betetzea ez dio inolako ordainsaririk ekarriko.

**58. artikulua.** Honako hauek izango dira EiTbren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoaren zereginak:

- a) EiTbren teleikusleek, irradi-entzuleek edo internautek bidaltzen dizkieten kekek, iradokizunak eta proposamenak jasotzea, izapidetzea eta erantzutea.
- b) Erakundea ordezkatzeta.
- c) Defentsa-organoaren barne-funtzionamendua antolatzea eta gainbegiratzea.
- d) Haren jarduera eta funtzioen zabalkundea egitea.

**59. artikulua.** 1. Administrazio Kontseiluko Akten idazkariak, aldi berean, EiTbren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoko Idazkaritzaren funtzioak hartuko ditu bere gain.

2. Defentsa Bulegoaren Erregistro Orokorraz arduratuko da eta, horren bidez, EiTbren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoari bidalitako idazkiei sarrera emango die. Era berean, organotik datozen komunikazio eta erantzunei irteera emango die.

3. Idazkaritzak artxibo-atal bat sortuko du organoaren dokumentuak gordetzeko, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu horiek babestu eta zaintzeko eta datu pertsonalak behar bezala babesteko.

## II. KAPITULUA - SARRERA-PROZEDURARI BURUZ

**60. artikulua.** Herritarrek idatziz aurkeztu ahalko dituzte kexak, iradokizunak eta proposamenak, idazkian euren eragin duten egitateak zehaztuz eta bidaltzailearen identifikazioa gehituz (izen-abizenak, NANA, helbidea eta harremanetarako telefonoa edo modua). Idazki hori gutunez edo posta elektronikoz helaraziko diote Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoari, baita EiTBren webgunearen bidez ere, horretarako jarrita dagoen estekan agertzen den formularioa erabiliz.

Dokumentazio hori idazkariak erregistratuko du, araudi honetako 59. eta 61. artikuluetan ezarritako eskumen eta funtzioez baliatuz.

**61. artikulua.** EiTBren Teleikusle, Irrati-entzule edo Internauten Defentsa Bulegorako kexa, iradokizun edo proposamen baten sarrera erregistratu bezain laster, idazkariak txandako kontseiluburuari helaraziko dio zuzenean, eta espediente bat irekiko du.

**62. artikulua.** Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoak kasu bakoitza aztertu eta, beharrezkoa izanez gero, erantzuteko behar diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak eskatuko dizkio zuzendari nagusiari. EiTBren **zerbitzura** dauden langileak Zuzendaritzak eskatzen dien informazio guztia ematera behartuta egongo dira, Defentsa Bulegoak bere funtzioa bete ahal izan dezan.

**63. artikulua.** EiTBren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoak gehienez hilabeteko epean erantzungo du, salbu eta gaiaren konplexutasunagatik edo izaeragatik denbora gehiago behar badu. Idatziz erantzungo du, EAEko bi hizkuntza ofizialetan, berak hautatutako bidetik edo, bestela, kexa, iradokizuna edo proposamena heldu den bide beretik.

**64. artikulua.** Defentsa Bulegoaren komunikazio- edo erantzun-idazki bakoitza dagokion espedienteari erantsiko zaio, eta horrela bukatuko da kasu horri lotutako esku-hartzea.

**65. artikulua.** EiTBren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoak emandako erantzun guztiak artxibatu egingo dira. Hiru hilean behin, Administrazio Kontseiluari aldi horretako jarduketan berri emango zaio eta, kasu urgenteenetan, organo horren hurrengo bileran.

**66. artikulua.** Gardentasun-printzipioak betez, Defentsa Bulegoak kudeatuko du jasotako kexei, iradokizunei eta proposamenei buruzko komunikazio publikoa. Horretarako, Herri Erakundearen sozietate bakoitzarentzat izapidetutako espedienteen kopuruaren berri

emango du. Defentsa Bulegoaren iritziz herritarrek ezagutu beharreko interes orokorreko kasurik badago, EiTBren webgunearen bidez jakinaraziko ditu, Defentsa Bulegoaren atalean, legeriak datu pertsonalen babesari buruz ezartzen dituen mugak kontuan hartuz.

## **VII. TITULUA - ARAUDIAREN ERREFORMA**

**67. artikulua.** Araudi hau erreformatzeko, gutxienez, Administrazio Kontseiluko bost kidek eskatu beharko dute.

Araudia guztiz edo zati batean erreformatzeko eskaerarekin batera, artikulutan antolatutako testu bat aurkeztu beharko da, aldaketa oinarritzeko arrazoiekin batera.

**68. artikulua.** Administrazio Kontseiluak erreforma-proposamenak aztertzeko batzorde berezi bat sortzea erabaki dezake.

**69. artikulua.** Nolanahi ere, araudia erreformatzeko Administrazio Kontseiluaren gehiengo kalifikatua beharko da, EiTBren Legean xedatu bezala.

**70. artikulua.** Edozein kasutan, EiTBren Administrazio Kontseilua ukitzen duen geroagoko legezko arau batek testu honetan aurreikusten diren baino betekizun zorrotzagoak edo aurreikusten ez diren betebeharrak jasoz gero, arautegi hau aldatu egingo da, indarrean dagoen legeria hautsi ez dezan eta horretara moldatuta eta egokituta egon dadin.

**71. artikulua.** Araudi hau EiTBren webgunean argitaratuko da, herritarrek EiTBren Administrazio Kontseiluaren barne-antolaketa ezagut dezaten.

## **AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau Administrazio Kontseiluak onetsi eta zazpi egun geroago sartuko da indarrean, VI. titulua, EiTBren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoari buruzkoa, izan ezik; hain zuzen, hori araudia onetsi eta hilabete bat geroago sartuko da indarrean, denbora horretan organo horri bidali nahi zaizkion kexak, iradokizunak eta proposamenak jasotzeko eta izapidetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak prestatze eta atontze aldera.

Bilbon, 2016ko ekainaren 28an.



Administrazio Kontseilua  
Consejo de Administración

## REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE EITB

Aprobado en reunión ordinaria de 28 de junio 2016





## INDICE

<b>PREÁMBULO</b>	<b>PAG. 3</b>
<b>TITULO I. DE LA CONSTITUCIÓN DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN</b>	<b>PAG. 3</b>
<b>TITULO II DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN</b>	<b>PAG. 4</b>
<b>CAPÍTULO I.- DE LA PRESIDENCIA</b>	
<b>CAPITULO II. - DE LOS Y LAS MIEMBROS</b>	
Sección 1ª Derechos y obligaciones	
Sección 2ª Cese o renuncia al cargo de consejero o consejera	
<b>CAPÍTULO III.- DEL PERSONAL TÉCNICO DE ASISTENCIA DEL CONSEJO</b>	
Sección 1ª secretaria o secretario de actas	
Sección 2ª letrado o letrada asesora	
<b>TÍTULO III. DE LAS COMISIONES</b>	<b>PAG. 7</b>
<b>TÍTULO IV. DEL FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO</b>	<b>PAG.9</b>
<b>CAPÍTULO I.- DE LA CONVOCATORIA DE LAS SESIONES</b>	
<b>CAPÍTULO II.- DE LOS TIPOS DE REUNIONES</b>	
<b>CAPÍTULO III.- DEL DESARROLLO DE LAS REUNIONES</b>	
Sección 1ª normas generales	
Sección 2ª de los debates	
Sección 3ª de las votaciones	
<b>TÍTULO V. DE PRINCIPIOS ÉTICOS Y TRANSPARENCIA</b>	<b>PAG. 13</b>
<b>TÍTULO VI. DE LA DEFENSORÍA DE LAS PERSONAS USUARIAS DE TELEVISIÓN, RADIO E INTERNET DE EITB</b>	<b>PAG. 14</b>
<b>CAPÍTULO I.- DE LA ORGANIZACIÓN DE LA DEFENSORÍA</b>	
<b>CAPÍTULO II.- DEL PROCEDIMIENTO DE ACCESO</b>	
<b>TÍTULO VII. REFORMA DEL REGLAMENTO</b>	<b>PAG. 16</b>
<b>DISPOSICIÓN FINAL</b>	<b>PAG. 16</b>

## PREÁMBULO

Este Reglamento tiene por objeto regular el trabajo y funcionamiento del Consejo de Administración de EITB desarrollando la LEY 5/1982, DE 20 DE MARZO, DE CREACIÓN DEL ENTE PÚBLICO "RADIO TELEVISIÓN VASCA" modificada posteriormente *por Ley 8/1998, 27 marzo («B.O.P.V.» 17 abril)*, en adelante Ley de EITB, en cumplimiento del artículo 8.2.f de la citada Ley, los relaciona con las políticas públicas de transparencia, establece el funcionamiento de la Defensoría de las personas usuarias de Televisión, Radio e Internet para dar cabida la participación de los usuarios y usuarias del servicio público de radiotelevisión vasca, incluido el que se presta a través de internet, y fija el procedimiento de reforma del propio Reglamento.

## TITULO I.- DE LA CONSTITUCION DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN.

**Artículo 1.1.** Al inicio de cada legislatura, el Parlamento Vasco adoptará el acuerdo de designación de las personas miembros del Consejo de Administración de EITB.

Una vez recibida la comunicación en el Ente Público, la Secretaría del Consejo de Administración lo pondrá en conocimiento de la persona que esté ejerciendo la Presidencia en funciones. Esta procederá a convocar, por un lado, a las nuevas consejeras y consejeros a la sesión constitutiva del mismo, que se celebrará en el plazo máximo de un mes a contar desde la adopción del acuerdo parlamentario; y, por otro, a las personas miembros del Consejo de Administración cesante.

Ambas convocatorias se señalarán para la misma fecha pero con una hora de diferencia entre ellas. Se celebrará, en primer lugar, la sesión del Consejo cesante en cuyo orden del día figurará como único punto la aprobación del acta de su última sesión.

A su término, tendrá lugar la sesión constitutiva del nuevo Consejo. En su orden del día se incluirá, en todo caso, la toma de posesión de las consejeras y consejeros, la constitución del Consejo bajo la Presidencia de quien tenga más edad, así como la designación o ratificación de las personas que habrán de desempeñar las funciones de Secretaría de Actas y Asesoramiento Jurídico.

